

24. Korrika



‘Euskara gara’
oihukatuz, Korrika

Martxoaren 28an iritsiko da Goierrira 24. Korrikaren lekukoa. Goierri prest dago, jai giroan, Korrikari ongi-etorria egiteko, eta euskara garaia aldarrikatzeko.

*Beasain, euskararen testigu
ahoz aho, belaunaldiz belaunaldi*



Beasaingo Udala



'Euskara gara' aldarrikatzera, inoizko babesik handienarekin

● Bihartik martxoaren 29ra bitartean, Atharratzen eta Bilbo lotuko ditu Korrikak.

GOIERRI—*Xiberutikan Mendebaldera* abestiaren erritmoan, bihar, 15:30ean Atharratzen hasita, martxoaren 29an Bilboko Areatzara 12:00etarako iristeko bidea egingo dute milaka eta milaka euskaltzalek. Lasterketarik luzeena eta bereziena da inondik ere Korrika: gelditu gabe, gau eta egun, 11 egunez eta

1980an Oñatitik Bilbora egin zen lehenengo Korrika hartatik, helburuak ez dira aldatu, nahiz eta 46 urte pasatu diren. Euskararen alde bi urtean behin antolatzen den ekitaldirik jendetsuenak bi helburu nagusi ditu. Batetik, euskararen sustapenean eragitea, euskararen aldeko konfiantzia suspertuz.



10 gauez, Euskal Herri osoan 2.175 kilometro eginez, eta eskuz eskuz, 3.436 eragilek euskararen lekukoa eramanez eta euskararen aldeko aldarrikapenak lau haizeetara zabalduz.

Goierrin martxoaren 28an

Ttipi-ttapa badator, bi urtean behin, AEK antolatutako Korrika eta Goierrin Korrikaren zain dago, antolaketa lanak eginda. Aurtengoan ere bukatu bezperan iritsiko da Korrika Goierrira, martxoaren 28an. Urretxun 07:44ak sartu eta, 50 kilometro eta 170 lekuko aldatze egin ondoren, Legorretatik irtengo da, 13:08ean. Beste behin ere, Korrikaren furgoneta, lekukoa, pankarta eta korrikalari andana ikusteak emozioak borborka jarriko ditu goierritarren artean.

Eta bestetik,

AEKko euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea. Baliabide ekonomiko horiekin, Euskal Herriko biztanle guztiek euskara ezagutzea, eta herritarrek egunerokoan euskara normaltasunez erabiltzea lortu nahi du AEK-k. Horretarako, euskararen normalizaziorako eremu guztietan aritzen da: ezagutzan, erabileran eta sustapenean.

Leloa eta omendua

Euskara gara mezua zabalduko du 24. Korrikak 11 egunetan, «euskara da euskaldun egiten gaituena. Euskarak batzen gaitu» aldarrikatuz. Komunitatea-

ren «izaera irekia eta askotarikoa» azpimarratuko dute, eta batez ere, «euskararen herrian denontzako tokia» dagoela. Ondoko zutabea dago

bitartean, Euskal Herriko errepideetan bi lagun berezi ariko dira korrika milaka eta milaka euskaltzaleren artean: Orburutxo eta Zainzuriñe panpinak. Errigorako kideen esanetan, Zainzuriñerekin eta Orburutxorekin, ibilbide osoan zehar euskara, elikadura burujabetza eta auzolanaren aldeko aldarria Euskal Herri luze-zabalean hedatuko dute.

Bi lagun horiek non dauden identifikatzen dituztenek –lasterketa bitartean, 24 orduko zuzenekoan eta/edo Korrika aplikazioan– sorpresaren bat izango dutela aurreratu dute AEKko arduradunek.

Parte hartzeko moduak

Korrikarekin bat egiteko eta Korrikan parte hartzeko modu desberdinak izaten dira. Batetik, aurretik, antolaketan arituz, Korrika batzordeetan parte hartuz eta herrietan antolatzen diren ekitaldietan parte hartuz.

Bestetik, diruz lagunduz. Korrika Laguntzailea izanez, Korrikako materiala erosiz, Korrikalarien petoa erosiz, edo diru ekarpena eginez Korrikaren izenean Laboral Kutxan dagoen kontuan ES70 3035 0072 02 0720037810 edo BIZUM bidez, «korrika», edo «aek» bilatuta. Beste aukera bat da, lekuko hartzerako diru ekarpena egitea. Gero eta gehiago dira familian eta lagunaren artean lekuko hartzerako dirua jartzen dutenak.

Eta nola ez, bakoitzak bere erritmoan eta ahal duen neurrian, Korrikaren egunean, korrika egitea edo bide bazterretik txalo eginez.

Goierrin Korrikarako prest da!●

24. Korrikaren mezua

Euskara-herria naiz, bizitzeko era, izateko modua.

Suaren antzekoa naiz: beti bera, beti berri.

Ongi etorri nire etxera, gure etxera.

Iraganetik gaur egunera, ateak beti zabalik ditugun babesgunea.

Zu eta ni euskara gara.

Bat gara.

Miloi bat euskaldun gara, eta gehiago izango gara.

Biziberritzen den komunitate aske eta irekia gara, elkarrekin sortuko dugun etorkizuna.

Alderik alde zeharkatuko dugun Euskal Herria gara.

Eman hitza, eta eman pauso, erdigunean jartzeko aniztasuna eta elkar zaintzea.

Eman pausoa, eta aktibatu, lehen lerroan nahi dugu helduen euskalduntzea.

Guztiok gara ezinbesteko.

Pertsona bakoitzak du balioa; hiltun bakoitzak, garrantzia.

Euskaltegian izena eman dugunok, euskara lehen hizkuntza dugunok,

kanpotik etorri garenok, euskaraz, Euskal Herrian, ikasi eta bizi nahi dugunok...

Guztiok herri bat gara.

Euskara gara.

Aditu Korrikaren deiadarra.

Izan gaitezen dardara, izan gaitezen indarra.

Piztu da Korrikaren garra!...

Gure euskara,
landa eremuaren
taupada



GOIMEN
LANDA GARAPENA

Goizane - Zaldibia
T 943 16 12 44
www.goimen.org



Errigorako Goierriko herrietako hainbat ordezkari, Segurako Elorri elkartean. LOINAZ AGIRRE

Errigorari aitortza

● 24. Korrikak Errigora omenduko du ibilbide osoan.

GOIERRI— 24. Korrikak aitortza egin nahi dio «euskaratik, euskararentzat eta euskaraz» lanean ari den Errigora proiektuari. Nafarroa hegoaldean, euskara ofiziala ez den eremuan, euskalduntzean egin duen eta egiten ari den lana nabarmendu nahi du Korrikak, eta aldi berean, babesa adierazi eta aurrera jarraitzeko bultzada eragin ere.

2013an martxan jarritako «egitasmo herritarra» da Errigora, «Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen». Nafarroa hegoaldea du ardatz, eta euskara ofiziala ez den eremuan eragiten du, bertako berezko elikagaiak Euskal Herriko etxeetaraino bidertatuz.

Korrikak bezala, euskal herri-

tar asko mobilizatzen ditu eskualdez eskualde, herriz herri. Goierriin, Xabier Albizu eta Erramun Amundarain zena izan dira urte askoan bultzatzaile nagusiak, nahiz eta orain gazteagoei erreleboa emana dieten.

«Herria egin»

Errigoraren eta Korrikaren arteko antzekotasunei buruz galdetuta, honela erantzun du Albizu segurarrak: «Biek egiten dute herria. Asmoa behintzat herria egitea da, hizkuntzaren bidez».

Urtean bi kanpaina antolatzen dituzte: Gabonetan, saskiak, eta udaberrian, produktu solteen loteak, gaur bukatuko dena. Kanpaina horiekin, elikadura burujabetza oinarri hartuta, Nafarroa hegoaldeko produktuek, ere egiten dituzte kilometroak. Euskal Herriko eskualdeetara lehenengo eta etxeetaraino ondoren. Kasu honetan, noski, ibilgailuetan.

13 urte hauetan Errigora

proiektuaren eragina nabarmena da Nafarroa hegoaldean, Albizuk nabarmendu duenez. Batetik, ekoizleentzat: «Epe luzeko lan bat da. Hasi ginenetik gaurko egunera, gero ekoizle gehiago dira. Izugarri eskertzen dute. Beraien lana edo produkzioa salduta egongo dela jakitea, izugarrizko aurreapena da». Albizuren esanetan, momentu honetan 20tik gora dira ekoizleak.

Ondorio nabarmenak

Eta bestetik, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari zuzeneko diru ekarpena egiten dio Errigorak, besteak beste, euskarak espazio berriak irabazita. Adibidez, «nesken futbol taldea sortu dute eta aisialdi programa ere bai».

Guzti horregatik, segurarrarentzat egokia da Korrikak Errigorari egingo dion aitortza: «Nik uste dut, Euskal Herrian jende askok daukala meritua, eta Errigora da horietako bat». ●





Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA
BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) 659 644 221 (Xabi)
Elbarrena 72 - 4 pabiloia ZALDIBIA



hortz klinika

1998tik

ZERBITZU
BERRIA



Joan Iturralde 3, behea
20200 Beasain
943 88 46 28



ATAUNGO UDALA



Ataunen, euskara gara, euskaraz gara

oreka

fisioterapia zentrua

Ainitze Jauregi
Kol. zkia. 179

- ERREHABILITAZIOA
- MANTENU TRATAMENDUA
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- KIROL MASAJEA
- LUNBALGIA ETA ZIATIALGIA
- DRENAJE LINFATIKOA

LARDIZABAL KALEA 3, Behea SEGURA Tel.: 943 80 02 88 / 646 32 94 79

Orklin, egunero euskaraz.



Ordiziara martxoaren 28an, larunbata,
11:56an iritsiko da.
Ondoren, pintxoak eta musika plazan.



LONTXO
ARRANDEGIA

Martina Maiz, 3 • 20200 • Beasain

678 79 76 04

Jaso itzazu gure eskaintzak Whatsapp-ez

Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 08:30 - 13:30

Egindako eskaerak 15:00ak arte jasotzeko aukera

Etkez etxeko banaketa eguerdi eta arratsaldean

lontxo2021@gmail.com



MUJKA
Liburu denda

Kale Nagusia, 19
Tel./Faxa: 943 88 11 94
ORDIZIA



ZEGAMAKO
UDALA



**BENETAKO
ARTZAI GAZTA**

Gure Latxa
artaldearen
esne gordinez
egindako gazta

Kale Nagusia, 37 - Idiazabal
T: 943 18 71 29

IDIAZABAL




BASERRIKOA

DE CASERIO • FERMIER • FARMHOUSE CHEESE • FET A CASA • FERMIER

DE CASERIO • FERMIER

4 / 24. Korrika

GOIERRIKO HITZA
2026ko martxoaren 18a, asteazkena



TOKIA	ORDUA	TOKIA	ORDUA	TOKIA	ORDUA
Urretxu (Deskarga)	07:44	Mutiloa	09:47	Beasain (Trenbide k.)	11:48
Urretxu (Garbigunea)	07:49	Zerain	09:56	Beasain (Nabarro Larreategi)	11:51
Urretxu (Sarrera biribil.)	08:01	Segura (Zerain biribilg.)	10:10	Beasain (Oriamendi,35)	11:52
Zumarraga (Bidegorri hasiera)	08:04	Segura (Mutiloa biribilg.)	10:25	Beasain (Kale Nagusia)	11:58
Zumarraga (Ospitaleko aldapa)	08:09	Idiazabal (Guardiko biribilg.)	10:27	Beasain (Ezkiaga)	12:05
Zumarraga (Lasalle)	08:13	Idiazabal (Ampo biribilgunea)	10:41	Ordizia	12:07
Urretxu (Zubi amaiera)	08:17	Idiazabal (San Inazio)	10:43	Ordizia (Urdaneta k.)	12:08
Urretxu (Labeaga k.)	08:19	Ihurre	10:47	Ordizia (Euskal Herria k.)	12:12
Zumarraga (Areizaga-Kalebarren pl)	08:22	Olaberria	11:01	Ordizia (Joseba Rezola)	12:15
Zumarraga (Oiaunberri)	08:29	Lazkao (San Prudentzio k.)	11:14	Ordizia (Filipinak k.)	12:19
Zumarraga (Berroeta)	08:35	Lazkao (Euskadi pl.)	11:19	Ordizia (Gipuzkoa k.)	12:23
Ezkio	08:49	Lazkao (Hiribarren, 16)	11:23	Ordizia (Gudarien etorb.)	12:26
Itsaso	09:12	Beasain (Senpere k.)	11:28	Arama (Industriagunea)	12:31
Ormaiztegi	09:17	Beasain (Esteban Lasa)	11:34	Itsasondo	12:36
Gabiria	09:28	Beasain (Oriamendi)	11:37	Legorreta	12:48
Lierni	09:40	Beasain (Foru k.)	11:40	Legorreta	13:08

ARTZAI GAZTA
ELKARTEA

BENETAKO ARTZAI GAZTA

Gure Latxa artaldearen esne gordinez egindako gazta

Kale Nagusia, 37 - Idiazabal
T: 943 18 71 29

IDIAZABAL
DE CASERIO • FERMIER • FARMHOUSE CHEESE • FET A CASA • FERMIER

BASERRIKOA
DE CASERIO • FERMIER

ARTZAI GAZTA
www.artzai-gazta.eus

24.korrika aek **Euskara gara**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Co-financiado por la Unión Europea



170

24. Korrikak Euskal Herrian egingo dituen 2.175 kilo-metroetatik 50 kilometro inguruko ibilbidea osatuko du Goierriin, Antzuolako mugatik Ikaztegira arteko mugara arte, 07:44etik 13:00ak bitartean. 170 bat lekuko aldatze [Euskal Herrian guztira, 3.436] egingo dituzte goierritarrek. 2.841. enetik 3.007ra artekoak.

Xiberutikan Mendebaldera

Erensugeren itzala
Santa-Grazitikan
Zarrakaztelura

Eta Errigoraren auzolan
eredua
Eskutik eskura
Hori ere bagara

Sorgin baten azken kanta
Itoizko kaleetan

Zer gara euskara bera
ez bagara
Maixux eta Erramunen
herrian

Maitasun eskutitz
baten bide luzea
Xiberutikan
Mendebaldera
Junkeraren fandango
berri bat bezala
Bidaia berri baten bila

Ko! rri! ka!
Arranoaren hegaldia
lumadi berriaz
Ko! rri! ka!
Irrintzi zahar bat aho
gaztetan
Gailur berrietan

Basurdearen aztarna gara
Elorretatikan
Agurainaldera

Larruz eraikitako milaka
etxola
Dajlatik Gazara
Hor da gure gogoa

Ezkerraldeko AEK
Saretuz lurra

Artzai gazte bat
kontu zaharretan
Bariñako Bidane Baskaran

Maitasun eskutitz
baten bide luzea
Xiberutikan
Mendebaldera
Junkeraren
fandango berri bat
bezala
Bidaia berri baten bila

Ko! rri! ka!
Arranoaren hegaldia
lumadi berriaz
Ko! rri! ka!
Irrintzi zahar bat aho
gaztetan
Gailur berrietan

Lauburu bat gâteau
batean baino
Euskara gara

Ilargirik gabe
mareak gora
Nola bestela?
Nola bestela?

Maitasun eskutitz
baten bide luzea
Xiberutikan
Mendebaldera
Junkeraren fandango
berri bat bezala
Bidaia berri baten bila

Ko! rri! ka!
Arranoaren hegaldia
lumadi berriaz
Ko! rri! ka!
Irrintzi zahar bat
aho gaztetan





— KALITATE ONEKO —
INPRESIOAK
A0
NEURRIRA ARTE
* 840mm x 1.180mm
A4 - A3 - A2 - A1

FOTOKOPIAK • PLANOAK • KARTELAK
PROIEKTUAK • DOKUMENTUAK • TESIAK

Nafarroa etorbidea, 17 - BEASAIN
Tel 943 88 94 82 / Faxa 943 88 60 44
eguzkiinprimategia@gmail.com



Konpromisoa
Berrikuntza
Etorkizuna





Ongi etorri Goierriira!

24.korrika aek
Euskara gara



SASIETA
MANKOMUNITATEA

www.sasieta.eus



AUZOKI
KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOAK SL
(Est. Zerb. 1997)

Araba kalea, 1-ORDIZIA
auzoki@auzoki.eus
Tel.: 943 087 486 / 688 651 379

Martxoaren 28an
KORRIKA Seguratik 9:58an.

Eta bezperan...
Patata tortila lehiaketa,
DJ Etxenike,
bingo-herrikoia...

24.korrika aek
Euskara gara



Segurako Udala

ORMAIZTEGIARRAK ERE EUSKARAREN ALDE!

KORRIKA TXIKIA
Marxoaren 27an, 12:00tan, San Andres herri eskola, Gabirialde, Zumarralde, Zumalakarregi, San Andres eta eskolara buelta Gabirialdetik, errepidez, furgonetaz lagunduta.

ANTZERKIA ETA ZOZKETA
Martxoaren 27an, 19:30etan Karamarro aretoan (eskola eremua). AMA BEGIRA ZAZU antzerkia Segurako Xirikara taldearekin. Amaieran, ikusleen artean 24.KORRIKako merchanaren zozketa.

KORRIKA ORMAIZTEGIRA IRISTEAN
Martxoaren 28an, 09:05ean*, talde bakoitzak bere lekukoa hartzearekin batera ORMAIZTEGIAR GUZTIAK KORRIKAREKIN BAT EGITERA gonbidatzen ditugu. Jarraian, txokolatea bizkotxoarekin** partaide guztientzat, plazan (euria bada, eliz atarian).

*Irizargo rotondan hasi eta Gabiria-Mutiloa bidegurutzeraino
**Bildutako dirua KORRIKarentzat izango da.



Martxoaren 28 goizerako Goierri prest

● Goierriin ia 50 kilometro egingo ditu 24. Korrikak, 170 lekuko aldatzerekin.

● Urretxuarrek hartuko dute lehendabizi lekukoa, eta legorretarrek azkenean.

GOIERRI— Ane Arrizabalaga eta Nekane Munduate dira Goierri garaian eta Goierri behean 24. Korrikaren antolaketa koordinatzeaz arduratu direnak. Herrietako batzordeekin eta eragileekin eskuz esku lanean aritu dira azken hilabeteetan, eta inork baino ezagutzen dute eskualdean Korrikaren inguruan egin den lana, Korrikaren inguruko xehetasunak eta herrietan sortu den giroa.

Korrikak 50 kilometro inguru egingo ditu Goierriin, martxoaren 28an. Antzuolako mugan hartuko dute goierritarrei dagokien lehen lekukoa urretxuarrek 07:44ean, eta Legorretan agurtuko dute legorretarrek, 13:00 pasatxoan.

Urretxuren eta Zumarragaren kasuan, 8,3 kilometro eta 20 lekuko hartze izango dira. Hala ere, Ane Arrizabalagak aurreratu duenez, «24 eragile badira dagoeneko parte hartuko dutenak, beraz, elkarbanatu egingo dute lekuko hartzea. Zatiak baino eragile gehiago izatea gauza ona da!».

Goierri beheko herrietan 42 kilometro inguru eta 150 bat lekuko-aldatze izango dira. «Bea-

sain, Lazkao eta Ordizia bezalako tokietan espazioa oso txikia da eta eragileak asko dira. Aurtengo Korrikan irizpide nagusia izan da, eramale bakoitzak, behintzat, 200 metro ematea. 200 metroka egingo dira lekuko aldatetak horrelako eremuetan», dio Nekane Munduatek. Lekuko aldatze bakoitzaren tokia zehaztuta egongo da panel berezien bidez.

Izan ere, «Kilometroa ez da erosten. Ekarpena egiten da, ez da ezer ere erosten». Munduatek mezu hori argitu nahi izan du. «Lekuko hartzea eskuratzen da. Aurtan horri eman nahi izan diogu garrantzia batzordeetan: ez da erosketa bat, baizik eta babes edo diru ekarpen bat ematea. AEKri egiten zaion diru ekarpena da».

Elkarbizitza

Helburu ekonomikoaz gain, dena den, beste ekarpen garrantzitsu bat ere egin dio Korrikak euskarari AEKko kideak adierazi duenez: «Komunitate bezala, Korrikak ematen diguna behar dugu, gure identitatearen keinua bat ere badelako. Eta emozio horiek bildu egiten ditugu Korrikarekin. Hori ere ezin da ahaztu».

Gainera, elkarbizitza ariketa garrantzitsua da Korrika Munduaterentzat, bai egunean bertan, eta baita aurreko asteetan ere. Herrietako batzordeak dira horren adibide Munduatek gogoratu duenez: «Batzordeak indartsu, oro har, jendetsu eta gogotsu izan ditugu aurtan. Batzorde batek esan nahi duen guztiarekin: batzordeak esan nahi du herriko elkarte, eragile eta norbanako



Beasainen bi itzuli eman beharrean, luzatu egingo da Korrikaren ibilbidea aurtan. AEK



«Bi urtean behin izaten da, gogotsu egoten gara. Euskararen aldeko ekintza zoragarria da»

ANE ARRIZABALAGA



«Ez da erraza elkartzea eta bat egitea, baina Korrikak lortzen du»

NEKANE MUNDUATE

desberdinak batu egin direla Korrikari lekua emateko. Ez da erraza elkartzea eta bat egitea, baina Korrikak lortzen du».

Gogotsu daude goierritarrak, beraz: «Urretxun eta Zumarragan emozioa eta gogo nabari dira; Legazpin, aldiz, egoera bestelakoa da. Aurtan azken horretatik ez da pasatzen, eta herritar batzuk eta gu saiatu garen arren zerbait prestatzen, ez dugu lortu».

Korrika Txikiak eta Korrika Kulturaleko ekintzen bidez, herriak girotuko direla uste du Arrizabalagak. «Korrika Kulturalean ere baditugu hainbat ekitaldi, eta horrez gain, eguneko egitaraua ere ederra ari da geratzen. Jendea lanerako dago, nabari da, eta guztiz eskertzekoa da!».

Larunbat goizean

Bilbon amaitu bezperan iritsiko da 24. Korrika Goierriara; duela bi urte bezala, larunbat goizean. Arrizabalagak gogoratu duenez, «eguna bera antolatzeak lan asko dakar berarekin, baina aurreko edizioan ere larunbata tokatu zen, eta egun mundiala izan zen; beraz, aurtengoan ere horrelakoxea ateratzea espero dugu».

Herrietan ekintza ugari antolatutuzte gainera martxoaren 28rako: «Denetik dago. Gosari herrikoiak, herri bazkariak, kultura aldetik kontzertuak, jolasak... Gosari herrikoiak antolatu dituzte herri askotan. Korrika pasa eta elkarrekin gosalduko dute. Polita da», argitu du Munduatek.

Larunbata izanda, kanpotik ere etorriko dira Goierriara Korrika egitera eta lekukoa hartzera. Besteak beste, Ezkion, Euskal Artzain Txakurren Adiskideen taldeak hartuko du. Eta ezkontza agurra duen lagun talde batek ere Goierriin egingo du korrika.

Momentua aprobetxatu

Amaitzeko, bi mezu eman nahi izan ditu Arrizabalagak. Batetik, «lekukoa eraman behar duten eragileei 40 minutu lehenago euren leketan egotea». Eta, bigarrenik, «Korrikan parte hartuko duten guztiei aprobetxatzea momentua; bi urtean behin izaten da, gogotsu egoten gara! Euskararen aldeko ekimen zoragarria da, herria batzen gara. Alderik alde zeharkatuko dugu Euskal Herria, beraz, gurera heltzean, gozatu!! Euskara gara!». ●

40
1983-2026
urte zugandik gertu

EGUZKI ENERGIA
Industrian
Etxean
Komunitatean

TAPIA
energia

Diseinatu | Instalatu | Mantendu

T. 943 889 594 | www.tapiaenergia.com

Gaur
logistika

Logistika eta Garraioa
trafico@gaurlogistika.com
www.gaurlogistika.com
943 888 938



KORRIKA KULTURALA
HERRIZ HERRI

Altzaga, Arama, Itsasondo

Martxoak 27. 17:00etan, Korrika Txikia, Itsasondotik Aramara. 19:30ean, Esanezinen kontzertua eta txokolate jana, Araman.
Martxoak 28. Itsasondon, 11:00etan, musika, txosna. 14:30ean, bazkaria eta jolasak.

Ataun

Martxoak 27. 17:00etan, Korrika Txikia. 19:30ean, San Gregorioko frontoian, talo-jana.
Martxoak 28. Korrika, Lazkaora.

Beasain

Martxoak 26. 10:30ean, Korrika Txikia.
Martxoak 27. 19:00etan, lekuko eramaleekin argazkia, Zubimuzun eta elektrotxaranga.
Martxoak 28. Korrikaren ondoren, mago poteoa.

Ezkio

Martxoak 27. 17:00etan, Korrika Txikia.
Martxoak 28. Korrikaren ondoren, gosaria. 18:30ean, *Supitoki Show* antzerkia.

Gabiria

Martxoak 27. Goizean, Korrika Txikia.
Martxoak 28. Korrikaren ondoren, txokolatea.

Idiazabal

Martxoak 27. Arratsaldean, Korrika Txikia, herri eskolatik plazara. 16:00etan, ume jolasak. 17:30ean, Xaibor disko-festa.
Martxoak 28. 10:27an, Korrikari ongi etorria. 11:00etan, pintxoak,



Martxoaren 8an Korrika Txikia eta herri bazkaria egin zituzten Gaintzan. HITZA

salda eta DJ Adonay, plazan. 16:30ean, erraldioen dantza tailerra, Guraso Elkartean.

Itsaso

Martxoak 26. 18:15ean, Irakurle Taldea, Iñigo Dorronsorrekina.
Martxoak 27. 15:00etan, Korrika Txikia.
Martxoak 28. Korrikaren ondoren, gosaria, Alegiako elkartean.

Lazkao

Martxoak 26. 16:30ean, jolasak.
Martxoak 27. 11:00etan, Korrika Txikia. 12:30ean, Kantujira. 19:00etan, Jundajo txaranga eta taloak. 21:00etan, erromeria Sukar taldearekin.
Martxoak 28. Joaldunak. 11:04ean, Korrika, buruhandi, erraldoi eta trikitilariak. 11:30ean, buruhandi eta erraldoiak. 14:30ean, herri bazkaria. 16:30ean, jolasak. 17:30ean, Skapaie elektrotxaranga eta 20:30ean, suzko zezena.

Legorreta

Gaur. Arratsaldean, futbolin lehiaketa gaztetxean, eta gauean

mus txapelketa Aldapa Haundin.
Martxoak 20. Kanpora Sartzen antzezlan, Herri Antzokian.
Martxoak 27. Goizean, Korrika Txikia eta zozketa. 20:00etan, Izaki Gardenak, antzokian.
Martxoak 28. 11:45ean, uda-letxetik, euskara ikasleek mezu irakurritakoan, Korrikara. 14:30ean, bazkaria, bingoa, eta koreografia.

Legazpi

Martxoak 26. 14:45ean, Korrika Txikia eta ondoren, DJ Kaktus.

Mutiloa

Martxoak 27. 16:30ean, Korrika Txikia.
Martxoak 28. Korrikaren ondoren, gosaria Troi elkartean.

Olaberria

Martxoak 27. Korrika Txikia eta bakarrizketa.
Martxoak 28. Pintxoak eta trikitilariak.

Ordizia

Martxoak 25. 19:00etan, bertso

poteoa, Goierriko Bertsozale elkarteak antolatuta.
Martxoak 27. 10:30ean, Korrika Txikia. 17:00etatik 20:00etara, Sustrai Bizia, haurrentzako festa gunea: herri kirolak, tailerrak, eskulanak, photocalla, disko festa) eta Segurako talogileak.
Martxoak 28. Korrika pasatutakoan, Plaza Nagusian, erraldoiak, buruhandiak, Burrunbazale txaranga eta pintxo salmenta.

Ormaiztegi

Martxoak 27. 12:00etan, Korrika Txikia. 19:30ean, Xirikara taldearen *Ama begira* zazu antzezlan, Karamarro aretoan. Amaieran, ikusleen artean, Korrikako materialaren zozketa.
Martxoak 28. Korrikaren ondoren, txokolatea plazan.

Segura

Martxoak 27. Goizean Korrika Txikia. 17:30ean, patata tortilla lehiaketa, DJ Etxenike, Azpilla dantza talea, bingoa...

Urretxu-Zumarraga

Martxoak 26. 19:00etan, *Lurdes*

Iriondo, ez gera alferrik pasako dokumental emanaldia eta Inge Mendioroza zuzendariarekin solasaldia. Zelai Arizti Aretoan (Antolatzailea: Butak 21).
Martxoak 28. 10:30ean, haur jolasak Zelai Ariztin. 12:00etan, erraldoi eta dultzaineroekin kalejira. 13:30ean, *Zu dantzaz*, Areizaga-Kalabarrenen. 14:30ean, herri bazkaria Ederrenan, musikaz girotuta. 19:30ean, Martxoan Bertsoako final handia. Ondoren, jaialdia.
Martxoak 29. 09:00etan gelto-kian, autobusa Bilbora.

Zaldibia

Martxoak 24. 16:30ean, Lardizabal eskolan, familientzako ikastaroa: *Como puedo ayudar a mis hijas/os sin saber euskera?*
Martxoak 26. 16:30ean, Lardizabal eskolan, familientzako ikastaroa: Nola eragin gure seme-alaben hizkuntza ohituretan? 17:30ean hasita, Talo festa.
Martxoak 27. 11:30ean, Korrika Txikia. 16:30etik 17:30era, Korrikako lekukoa egiteko eskulana, Guraso Elkartearen eskutik. 18:30ean, Porrikaren zozketa eta Korrikako materialaren salmenta plazan. 19:30ean, Kantu Jira.
Martxoak 28. 11:30ak inguruan Korrika Ordizian. Autobusa: 10:20ean Zaldibiko plazan.
Martxoak 29. Bilbora joateko autobusa.

Zegama

Martxoak 27. Goizean, Korrika Txikia.
Martxoak 28. Korrikaren ondoren, gosaria.

Zerain

Martxoak 27. 18:30ean, Jon Maia Soriaren *Extremaduratik Zeraingo horma irudira. Barne eta kanpo bidaia* hitzaldia. Ondoren, mokadutxoa.
Martxoak 28. Korrikaren ondoren, txokolatea, Lltzormendin.

zabale
— belardenda

Santa Maria, 8 - ORDIZIA
www.zabale.eus

Gure zerbitzuak

- Akupuntura
- Pisua kontrolatzea; argi interakzioaren ebaluazioa
- Haurrentzako elikagaiak
- Sendabelarrak
- Elikagai biologikoak, glutenik gabeko elikagaiak eta kosmetika naturala
- Kirolarientzako produktuak

Ibaiondo

A R O Z T E G I A
A L T Z A R I A K

Katea kalea, 5
Beasain www.mueblesibaiondo.com

943 16 40 40
639 631 640

2024ko Korrikako oroitzapen kutxako irudiak



24.korrika **æk**
Euskara gara
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra

Olaberriko Udala

24.korrika **æk**
Euskara gara

**Korrika
Urretxu-Zumarragan!!**

Martxoaren 28a, larunbata:

- 07:44 Deskarga, 08:10 Eitzaga **KORRIKA**.
- Jarraian, txokolate beroa Areizaga-Kalebarrenen.
- 10:30 Haur jolasak Zelai Ariztin.
- 12:00 Erraldoi eta dultzaineroekin kalejira.
- 13:30 "Zu dantzaz" Areizaga-Kalebarrenen.
- 14:30 Herri Bazkaria Ederrenan musikaz girotuta.
- 19:30 Martxoan Bertsoko final handia.
- Ondoren, jaialdia.

Martxoaren 29a, igandea:

- 9:00 autobusa Bilbora geltokitik!"

Zumarragako Udala Urretxuiko Udala

ZUBIKOETA, S.L.
GASOLINDEGIA

**BEROGAILUENTZAT
GASOLEOA**
AUTO - GARBIKETA
ERREGAI MOTA GUZTIAK

Zubikoeta Industrialdea, 1
Tel.: 943 180 486
Faxa: 943 180 487
zubikoeta@zubikoeta.es
ATAUN

maizpide
www.maizpide.eus

**Maizpiden ere
Euskara
gara**

**æk
24.korrika**
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra